Parlamento de Navarra. REGISTRO ENTRADA 1498 23-03-2018 hora 12:28 9-18/PRO-00008

Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

# Instancia General / Instantzia Orokorra

Don/Doña IMANOL KARRERA TURRILLO DNI/NIF 72816716-G
Izen-deiturak: NAN/IFZ:

En representación de EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA -ren izenean

con domicilio en calle ARGA IBAIA BEHEA (LAB) C.P. 31014 Localidad IRUNEA
Helbidea. Kalea: Posta-kodea: Herria:

Tfno. 618 138 465 e-mail i.karrera@lab.eus
Telefonoa: posta elektronikoa:

**Resumen del tema** HERRI EKIMEN LEGEGILEAREN ERREGISTROA
**Gaiaren laburpena:**

INSTANTZIA HONEKIN BATERA NAFARROAKO PARLAMENTUAN PROPOSATZEN DUGU HERRI EKIMEN LEGEGILEA ERREGISTRATZEA DUGU NAFARROAKO PARLAMENTUAK ONARTZEKO ETA TRAMITEA EMATEKO, LEGEAK AGINTZEN DUEN MODUAN

En ..., a ... de ... de 20...
IRUÑEA n, 2018 (e)ko MARTXOAREN aren 23 an

Firma – Sinadura

EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARIA

*(Traducción del escrito que lleva el número 1498 de entrada en el Registro)*

Instancia General/Instantzia Orokorra

Don/Doña ......Imanol Karrera Turrillo DNI/NIF 72816716G..........................................

En representación de....... Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria.....-ren izenean

Con domicilio en/Helbidea ....calle Arga ibaia beh. (LAB) CP 31014 Localidad ....Pamplona-Iruñea

Tfno/Telefonoa 618 138 465 Email/Posta elektronikoa...i.karrera@lab.eus

Resumen del tema/Gaiaren laburpena: Registro de iniciativa legislativa popular

Mediante la presente instancia presentamos al Parlamento de Navarra la iniciativa legislativa popular que la acompaña, para que sea admitida y tramitada por el Parlamento de Navarra, tal y como se establece legalmente.

En Pamplona, a 23 de marzo de 2018

# A la Mesa del Parlamento de Navarra

Mitxel Lakuntza Vicario (44630379-Y), Imanol Carrera Turrillo (72816716-G), Araceli Montes Calvo (18197762-R), Iratxe Álvarez Reoyo (72392884-Q) y Amaia Zufia Erdozain (73112995-C), con domicilio a efectos de notificaciones en la Calle Iturralde y Suit s/n de Pamplona (31004) y en la Calle del Río Arga, 12 de Pamplona (31014), mediante el presente escrito SOLICITAMOS:

El registro y tramitación de la siguiente **INICIATIVA LEGISLATIVA POPULAR** (ILP): "**Por un Sistema de Protección Social Público y de Calidad. Frente a la pobreza y exclusión**" cuyo objetivo es introducir mejoras en la legislación actual de Renta Garantizada y en materia de vivienda.

Esperando que nuestra petición sea aceptada,

Fdo. Las personas que componen la Comisión Promotora

Iruñea, 23 de marzo de 2018

# Nafarroako Parlamentuko Mahaiari

Mitxel Lakuntza Vicario (44630379-Y), Imanol Carrera Turrillo (72816716-G), Araceli Montes Calvo (18197762-R), Iratxe Álvarez Reoyo (72392884-Q) eta Amaia Zufia Erdozain (73112995-C), Iruñeko (31004) Iturralde y Suit z/g eta Arga Ibaia, 12 (31014) kaleetan helbideratuak, idatzi honen bitartez ondorengoa ESKATZEN dugu:

**"Gizartearen Babes Sistema Publiko eta Kalitatezko baten alde. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurka" HERRI EKIMEN LEGEGILEAren** (HEL) erregistroa eta tramitazioa. Honen helburua egungo Errenta Bermatuaren eta etxebizitza arloko legedia hobetzea da.

Gure eskaera onartua izango delakoan,

Batzorde Eragilea osatzen duten pertsonek sinatua

Iruñea, 2018ko martxoaren 23a

# Relación de las personas que componen la Comisión Promotora de la ILP "Por un Sistema de Protección Social Público y de Calidad. Frente a la pobreza y exclusión"

Mitxel Lakuntza Vicario (44630379-Y)

Imanol Carrera Turrillo (72816716-G)

Araceli Montes Calvo (18197762-R)

Iratxe Álvarez Reoyo (72392884-Q)

Amaia Zufia Erdozain (73112995-C)

La Comisión Promotora designa a Mitxel Lakuntza Vicario, con domicilio a efecto de notificaciones en la Calle Iturralde y Suit s/n de Pamplona (31004) y a Imanol Carrera Turrillo, con domicilio a efecto de notificaciones en la Calle del Río Arga, 12, Pamplona (31014) para defender la proposición de ILP ante el Parlamento de Navarra en el momento de su debate.

Iruñea, 23 de marzo de 2018

“Gizartearen Babes Sistema Publiko eta Kalitatezko baten alde. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurka”
HEL-aren Batzorde Eragilea osatzen duten pertsonen zerrenda

Mitxel Lakuntza Vicario (44630379-Y)

Imanol Carrera Turrillo (72816716-G)

Araceli Montes Calvo (18197762-R)

Iratxe Álvarez Reoyo (72392884-Q)

Amaia Zufia Erdozain (73112995-C)

Batzorde Eragileak Mitxel Lakuntza Vicario, Iruñeako (31004) Iturralde y Suit z/g kalean helbideratua, eta Imanol Carrera Turrillo, Iruñeako (31014) Arga Ibaia 12 Kalean helbideratua, izendatzen ditu HEL-a Nafarroako Parlamentuaren aurrean defendatzeko hau eztabaidatzeko garaian.

Iruñea, 2018ko martxoaren 23a

# Razones que aconsejan la tramitación y aprobación de la ILP "Por un Sistema de Protección Social Público y de Calidad. Frente a la pobreza y exclusión"

Hoy los niveles de exclusión social y pobreza en Hego Euskal Herria son más que preocupantes. Las políticas públicas de corte neoliberal, las reformas, la crisis económica, el aumento progresivo de la precariedad laboral, los recortes, etc. han provocado que cada vez sean más los sectores de la población con insuficientes recursos económicos para hacer frente a niveles mínimos de bienestar (disponibilidad económica, vivienda, energía, alimentación, desarrollo infantil, ocio y cultura).

El mercado laboral actual, cada vez más precario y desigual, empobrece y no garantiza unos recursos económicos suficientes. Cada vez es mayor el fenómeno de trabajadoras y trabajadores pobres, que no llegan a fin de mes, que son víctimas de la pobreza no visible, como la energética, farmacéutica, o la pobreza infantil.

La discriminación se perpetúa aún más en el caso de las mujeres en un mercado laboral segregado profesionalmente y que impide la necesaria autonomía económica que permita desarrollar un proyecto de vida independiente.

Asimismo la situación de la juventud está muy lejos de lo deseable. Las personas jóvenes tienen totalmente limitado el derecho a un empleo que les garantice una vida que merezca la pena ser vivida, sufren elevadísimas tasas de desempleo y precariedad. En su caso, crearse un proyecto de futuro resulta del todo imposible.

Siendo cierto que existen unas normas mínimas que persiguen garantizar unos mínimos de protección social, como la Ley Foral 15/2016, de 11 de noviembre, por la que se regulan los derechos a la Inclusión Social y a la Renta Garantizada, y la Ley Foral 10/2010, de 10 de mayo, del Derecho a la Vivienda en Navarra, también es cierto que actualmente resultan insuficientes.

Las pensiones se vienen recortando por diversas vías (recorte de las nuevas pensiones, retraso de la edad de jubilación, pérdida de poder adquisitivo). Las prestaciones sociales, como la Renta Garantizada, no protegen a todas las personas que realmente lo necesitan, y si lo hacen es con prestaciones absolutamente insuficientes. El derecho efectivo a una vivienda no se reconoce como derecho.

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria plantea un modelo económico y

social alternativo al neoliberal, poniendo en el centro la defensa de la vida y del planeta por encima de los intereses de una minoría, la preeminencia del trabajo respecto al capital y las personas respecto al mercado.

Son necesarias políticas públicas efectivas y reales de reparto equitativo de la riqueza, creación de empleo de calidad (que sea socialmente útil, estable y con una remuneración justa), así como la necesidad de generar políticas de reducción y reparto del tiempo de trabajo. Es imprescindible considerar el trabajo en toda su amplitud, integrando el trabajo productivo y el reproductivo.

Asimismo, la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria defiende la necesidad de que las decisiones sobre las políticas sociales y laborales se adopten en nuestro ámbito territorial, lo que requiere avanzar en un Marco Propio de Relaciones Laborales y Protección Social en Navarra.

Dentro de este modelo alternativo, vemos necesario adoptar medidas que vayan encaminadas a garantizar y mejorar los derechos sociales, atajando la pobreza y la exclusión social.

Iruñea, 23 de marzo de 2018

# “Gizartearen Babes Sistema Publiko eta Kalitatezko baten alde. Pobreziaren eta bazterkeriaren aurka” HEL-a tramitatzeko eta onartzeko arrazoiak

Gaur egun, bazterkeria soziala eta pobrezia mailak kezka larria eragiten du. Kutsu neoliberaleko politika publiko baten, erreformaren, krisialdi ekonomikoaren, lan prekarietate hazkorraren, murrizketen eta abarren ondorioz gero eta biztanleriaren sektore gehiagok baliabide ekonomiko gutxiago daukate gutxiengo ongizate mailari aurre egiteko (askitasun ekonomikoa, etxebizitza, energia, elikadura, haurren garapena, aisia eta kultura).
Gaurko lan merkatuak, gero eta prekarioagoa eta desberdintasun handiago duena, pobretu egiten du, eta ez ditu baliabide ekonomiko nahikorik bermatzen. Hedatzen ari da langile pobreen fenomenoa, hilabete amaiera iritsi ezinik bizi direnena, ikusten ez den pobreziaren biktimak, esaterako, energia eta botika beharrizanak estaltzeko, edota haurren pobrezia.

Diskriminazioa areago luzatzen da emakumeen artean, profesionalki segregatuta dagoen lan merkatuan. Lan merkatu honek eragozten du bizi-proiektu independente bat garatzeko autonomiara iristea.

Halaber, gazteen egoera ez da batere desiragarria. Bizimodu duina bermatuko dien enplegua lortzeko aukerak oso urriak dira, eta langabezia nahiz prekarietate tasa itxuragabeak pairatzen dituzte. Etorkizuneko proiektu bat sortzea erabat ezinezkoa gertatzen zaie.

Egia bada ere babes sozialeko gutxienekoak bermatze aldera, badirela gutxieneko arau batzuk, esaterako azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, zeinak arautzen dituen Gizarteratzea eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, zeinak arautzen dituen Etxebizitzarako Eskubidea Nafarroan, egia da ere, gaur egun eznahikoak direla.

Pentsioak hainbat eratara murriztu izan dira (pentsio berriak murriztuz, erretiratzeko adina atzeratuz, erosteko ahalmena galduz). Prestazio sozialek, esaterako Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak, ez ditu babesten egiazki behar duen pertsona oro, eta egiten badu, guztiz eznahikoak diren prestazioen bidez egiten du. Etxebizitza izateko eskubide efektiboa ez da eskubidetzat onartzen.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eredu neoliberalaren alternatiba den eredu ekonomiko eta soziala proposatzen du, gutxiengo batek izan ditzakeen interesak baino, bizitzaren eta lurraren defentsa lehenetsiz, kapitala baino lana lehenetsiz eta merkatua baino pertsonak.

Taxuzko eta benetako politika publikoak behar dira aberastasuna banatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko (sozialki baliagarria, egonkorra eta bidezko ordaina

duena), lanaldiaren murrizketa eta banaketa lortzeko. Ezinbestekoa da lana bere osotasunean aintzat hartzea, lan produktiboa zein erreproduktiboa barne.

Halaber, Eskubide Sozialen Kartak babesten du gizarte eta lan politikei buruzko erabakiak gure lurralde-eremuan hartu behar direla; horretarako, Lan Harreman eta Gizarte Babeseko bertako Esparrua erdiesteko bidean aurrera egin behar da Nafarroan.

Eredu alternatibo honen baitan, beharrezkoa deritzagu eskubide sozialak bermatu eta hobetuko dituzten neurriak hartzeari, pobreziari eta bazterkeria sozialari aurre eginez.

Iruñea, 2018ko martxoaren 23a

# Iniciativa Legislativa Popular contra la pobreza y la exclusión social

*La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria ha presentado la Iniciativa Legislativa Popular que ha desarrollado contra la pobreza y la exclusión social. El objetivo de esta iniciativa es mejorar la legislación de vivienda y Renta Garantizada.*

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria ha presentado la Iniciativa Legislativa Popular que ha desarrollado contra la pobreza y la exclusión social. La Carta es un espacio en el que participamos diferentes sindicatos, movimientos sociales, así como redes de economía social y solidaria

La Iniciativa Legislativa Popular recoge una serie concreta de medidas con el objetivo de mejorar la realidad de las políticas de ingresos mínimos garantizados y el derecho al acceso a una vivienda digna. Con esta ILP se pretende cambiar la legislación para ligar la cuantía de la Renta Garantizada al SMI y mejorar su acceso, así como garantizar el derecho a una vivienda digna.

Las instituciones de Navarra tienen competencias para adoptar políticas que protejan a la ciudadanía en estas materias. La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria exige a quienes nos gobiernan que pongan las instituciones al servicio de la mejora de la calidad de vida de la mayoría. Solo hace falta voluntad política para ello.

La Iniciativa Legislativa Popular se presenta ante el Parlamento de Navarra, y para que esta iniciativa salga adelante se necesitan alrededor de 5.000 firmas, el 1% del censo electoral. Una vez superado el trámite del Parlamento, el objetivo es desarrollar la iniciativa de abril a junio.

Iruñea, 23 de marzo de 2018

# Pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurkako Legegintzako Herri Ekimena

*Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurka garatuko duen Legegintzako Herri Ekimena aurkeztu du. Herri ekimen honen helburua Errenta Bermaturaren eta etxebizitza arloko legedia hobetzea da.*

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurka garatuko duen Legegintzako Herri Ekimena aurkeztu du. Karta sindikatu ezberdiñek, mugimendu sozialek eta hainbat ekonomia sozial eta solidario sareek osatzen duten espazioa da.

Ekimen honek hainbat neurri zehatz jasotzen ditu; helburua bermatutako gutxieneko diru-sarreren politikak hobetzea eta etxebizitza duin baterako eskubidea izatea da. Ekimen honekin legedia aldatu nahi da Errenta Bermatuaren zenbatekoa gutxieneko soldataren araberakoa izateko eta prestazio hau jasotzea errazteko, eta etxebizitza duin bat izateko eskubidea bermatzeko.

Nafarroako erakundeek badituzte gai hauen inguruan herritarrak babestuko dituzten politikak garatzeko eskumenak. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak erakundeei exijitzen die gehiengoaren bizi kalitatea hobetzeko neurrien esanetara jarri daitezela. Soilik borondate politikoa behar da horretarako.

Legegintzako Herri Ekimena Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da. Ekimenak aurrera egin ahal izateko gutxienez hauteskunde erroldaren %1a behar du, hots, 5.000 sinadura inguru. Parlamentuko tramiteak gaindituta, ekimena apirila eta ekaina bitartean garatzea da helburua.

Iruñea, 2018ko martxoaren 23a

# POR UN SISTEMA DE PROTECCIÓN SOCIAL PUBLICO Y DE CALIDAD

## CONTRA LA POBREZA Y EXCLUSIÓN SOCIAL

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

# EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hoy los niveles de exclusión social y pobreza son más que preocupantes. Las políticas públicas de corte neoliberal, las reformas, la crisis económica, el aumento progresivo de la precariedad laboral, los recortes, etc. han provocado que cada vez sean más los sectores de la población con insuficientes recursos económicos para hacer frente a niveles mínimos de bienestar (disponibilidad económica, vivienda, energía, alimentación, desarrollo infantil, ocio y cultura).

El mercado laboral actual, cada vez más precario y desigual, empobrece y no garantiza unos recursos económicos suficientes. Cada vez es mayor el fenómeno de trabajadoras y trabajadores pobres, que no llegan a fin de mes, que son víctimas de la pobreza no visible, como la energética, farmacéutica, o la pobreza infantil.

La discriminación se perpetúa aún más en el caso de las mujeres en un mercado laboral segregado profesionalmente y que impide la necesaria autonomía económica que permita desarrollar un proyecto de vida independiente.

Asimismo la situación de la juventud está muy lejos de lo deseable. Las personas jóvenes tienen totalmente limitado el derecho a un empleo que les garantice una vida que merezca la pena ser vivida, sufren elevadísimas tasas de desempleo y precariedad. En su caso, crearse un proyecto de futuro resulta del todo imposible.

Siendo cierto que existen unas normas mínimas que persiguen garantizar unos mínimos de protección social, como la Ley Foral 15/2016, de 11 de noviembre, por la que se regulan los derechos a la Inclusión Social y a la Renta Garantizada, y la Ley Foral 10/2010, de 10 de mayo, del Derecho a la Vivienda en Navarra, también es cierto que actualmente resultan insuficientes.

Las pensiones se vienen recortando por diversas vías (recorte de las nuevas pensiones, retraso de la edad de jubilación, pérdida de poder adquisitivo). Las prestaciones sociales, como la Renta Garantizada, no protegen a todas las personas que realmente lo necesitan, y si lo hacen es con prestaciones absolutamente insuficientes. El derecho efectivo a una vivienda no se reconoce como derecho.

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria plantea un modelo económico y social alternativo al neoliberal, poniendo en el centro la defensa de la vida y del planeta por encima de los intereses de una minoría, la preeminencia del trabajo respecto al capital y las personas respecto al mercado.

Son necesarias políticas públicas efectivas y reales de reparto equitativo de la riqueza, creación de empleo de calidad (que sea socialmente útil, estable y con una remuneración justa), así como la necesidad de generar políticas de reducción y reparto del tiempo de trabajo. Es imprescindible considerar el trabajo en toda su amplitud, integrando el trabajo productivo y el reproductivo.

Asimismo, la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria defiende la necesidad de que las decisiones sobre las políticas sociales y laborales se adopten en nuestro ámbito territorial, lo que requiere avanzar en un Marco Propio de Relaciones Laborales y Protección Social en Navarra.

Dentro de este modelo alternativo, vemos necesario adoptar medidas que vayan encaminadas a garantizar y mejorar los derechos sociales, atajando la pobreza y la exclusión social. Para ello planteamos la necesidad de modificar:

- **La Ley Foral 15/2016 de 11 de noviembre por la que se regulan los derechos a la Inclusión Social y a la Renta Garantizada**, con el fin de mejorar la cobertura de dicha Renta.
- **La Ley Foral 10/2010 de 10 de mayo por la que se regula el Derecho a la Vivienda en Navarra**, para que el reconocimiento del derecho subjetivo de acceso a una vivienda de alquiler social sea real, obligando a las instituciones a dar respuesta a las necesidades sociales.

Para ello se plantea el siguiente,

# TEXTO ARTICULADO

**ARTÍCULO 1: En relación a la Ley Foral 15/2016, de 11 de noviembre, por la que se regulan los derechos a la Inclusión Social y a la Renta Garantizada, se propone:**

**A.- Modificación del artículo 5.- Titulares del derecho,** en sus apartados a), b), y derogación de los apartados c) y d), quedando la redacción como sigue:

**ARTÍCULO 5. Titulares del derecho.**

Tendrán derecho a la Renta Garantizada las personas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Ser mayores de 18 años. Este límite mínimo de edad quedará exceptuando para quienes, no alcanzando dicha edad y reuniendo el resto de requisitos, se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

- Tener un empleo con ingresos insuficientes
- Ser perceptoras de pensiones de invalidez
- Tengan económicamente a su cargo a otras personas menores de edad o a personas adultas con discapacidad o con calificación de dependencia.
- Sean huérfanas de padre y de madre.
- Estuvieran unidas a otra persona por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación.
- Hayan sido víctimas de violencia de género.

b) Estar empadronadas y tener residencia efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Foral de Navarra en el momento de la presentación de la solicitud y haber estado empadronadas en cualquier municipio de la Comunidad Foral de Navarra al menos con un año de antelación a la fecha de presentación de la solicitud.

En los supuestos de empadronamiento por tiempo inferior al año, se admitirán pruebas que acrediten la residencia efectiva para permitir completar el requisito del año.

Si no se cumple ese período mínimo previo, deberán haber estado empadronadas en cualquier municipio de la Comunidad Foral de Navarra durante cinco años continuados en los diez inmediatamente anteriores.

**B.- Modificación del artículo 6.- Unidad perceptora, unidad familiar y núcleo familiar.** en sus apartados 3 y 4 quedando la redacción de estos apartados como sigue:

**ARTÍCULO 6. apartado 3:**

3.- Con carácter general, la unidad familiar será la perceptora de la Renta Garantizada y le corresponderá una única prestación. También se podrán percibir otras Rentas Garantizadas cuando existan varios núcleos familiares en la misma unidad familiar y alguno de ellos incluya a menores o a personas dependientes o con una discapacidad igual o superior al 65%.

**ARTÍCULO 6. apartado 4:**

4. En el caso de que en el mismo domicilio convivan dos o más unidades familiares sin que existan entre ellas vínculos de los previstos en el artículo 6.2, cada una tendrá derecho a percibir una Renta Garantizada, sin límite en cuanto a número de Rentas percibidas en un mismo domicilio.

**C.- Modificación del artículo 7.- Cuantías.** Se modifican los apartados 1, 2 y se suprimen los apartados 3 y 4. La redacción de todos ellos queda como sigue:

**Artículo 7. Cuantías. Apartado 1:**

La cuantía mensual de la prestación aplicable a cada unidad perceptora será la resultante de deducir de la cuantía prevista en esta Ley Foral los ingresos computables que tuviese la unidad perceptora en los términos previstos en la misma.

A tal efecto, la cuantía mínima se definirá como porcentajes del salario mínimo interprofesional y serán los siguientes:

- 100 % del salario mínimo interprofesional para las unidades perceptoras unipersonales.
- 150% del salario mínimo interprofesional para las unidades perceptoras de dos personas.
- 200 % del salario mínimo interprofesional para las unidades perceptoras de tres o más personas.

**Artículo 7 apartado 2:**

La cuantía de la Renta garantizada será la resultante de deducir de dicho límite los ingresos computables que tuviese la unidad perceptora en los términos previstos en esta ley, y que serán complementados hasta las cuantías fijadas en el apartado anterior.

A partir de la entrada en vigor de la presente Ley, dicha cuantía se actualizará anualmente como mínimo, conforme al incremento mayor que sufran el SMI, el IPC o el de los salarios medios de Navarra del ejercicio anterior.

**D.- Modificación del artículo 16.- Periodo de percepción,** que queda redactado como sigue:

**Artículo 16:**

Se reconoce el derecho a la Renta Garantizada sin limite temporal alguno siempre y cuando subsistan las causas que motivaron su concesión y se cumplan las obligaciones previstas en la presente Ley.

**E.- Modificación del articulo 18.- Obligaciones, en su apartado c) cuya redacción queda como sigue:**

**Articulo 18. apartado c)**

Mantenerse, todas las personas perceptoras en edad laboral, disponibles para las ofertas de empleo adecuado, salvo cuando se trate de personas que, a juicio de los servicios públicos que se establezcan reglamentariamente, no se encuentren en situación de incorporarse al empleo laboral ni a un empleo protegido.

**F.- Modificación del artículo 21.- Resolución del procedimiento y suspensión del plazo para resolver, que queda redactado en su apartado 1 como sigue:**

1. El órgano competente para tramitar y resolver las solicitudes de Renta Garantizada será el servicio competente en materia de garantía de ingresos, cuyo titular dictará la resolución en el plazo máximo de un mes contados desde la fecha de entrada en alguno de los registros oficiales del Gobierno de Navarra y, en su caso, determinará la cuantía de la prestación y el período de percepción.

Si la resolución no se dictara y notificara en dicho plazo, la solicitud se entenderá estimada por silencio administrativo.

**G.- Modificación del artículo 25.- Extinción del derecho a la prestación, suprimiendo los apartados a y e.**

**H.- Modificación del artículo 34.- Disposiciones Generales, que queda redactado en su apartado 3 como sigue:**

3. En el caso de que la unidad familiar haya sido perceptora de Renta Garantizada por un periodo continuo de al menos veinticuatro meses, la Administración Pública correspondiente deberá ofertarle, en su caso, al menos la posibilidad de participar en un programa de Empleo Social Protegido u otra opción de empleo y/o formación, salvo que, a juicio de los servicios públicos que se establezcan reglamentariamente, sus

miembros no se encuentren en condiciones de incorporarse al mismo. Esta oferta deberá constar en el programa personalizado, así como las obligaciones derivadas de ello. En todo caso, la decisión sobre el carácter adecuado del empleo ofertado y su aceptación corresponde a la persona perceptora, y su no aceptación no supondrá la pérdida de la Renta Garantizada.

## I.- Disposición Adicional Primera.- Eliminación del apartado segundo:

**Artículo 2: Respecto a la LEY FORAL 10/2010, DE 10 DE MAYO, DEL DERECHO A LA VIVIENDA EN NAVARRA se propone:**

**Añadir los apartados 3, 4 y 5 al artículo 2, que quedan redactados como sigue:**

**Artículo 2. Actuaciones protegibles y modos de satisfacción y requisitos de exigencia del derecho subjetivo**

3.La satisfacción del derecho a la ocupación legal de una vivienda digna y adecuada deberá ser realizada por parte de la Administraciones Públicas de Navarra mediante la puesta a disposición, en régimen de alquiler, de una vivienda protegida o de un alojamiento protegido, o incluso de una vivienda libre en caso de su disponibilidad por causa de programas de intermediación u otros, con la renta o el canon que corresponda en cada caso.

El precio o la renta no podrá superar el 15% de los ingresos cuando el conjunto de los ingresos de las personas que conviven en la vivienda sea igual o inferior a la Renta Garantizada.

4. El sistema de prestaciones económicas de vivienda nunca será sustitutivo del derecho recogido en el apartado anterior.

5. Para la exigencia ante la Administración Pública competente del derecho de acceso resultará necesario cumplir la totalidad de los siguientes requisitos:

- No hallarse en posesión de vivienda ni de alojamiento estable o adecuado. La no adecuación de la vivienda podrá deberse a razones jurídicas, de habitabilidad, de tamaño, de capacidad económica o cualesquiera otras que dificulten una residencia cotidiana y normalizada.
- Hallarse válidamente inscrito en el Censo de solicitantes de vivienda protegida.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de esta Ley quedarán derogadas todas las Disposiciones legales o reglamentarias que entren en contradicción o se opongan a la misma.

# BABES SOZIALEKO SISTEMA PUBLIKOA ETA KALITATEZKO BATEN ALDEKO HEL

## POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen Karta

# ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, bazterkeria soziala eta pobrezia mailak kezka larria eragiten du. Kutsu neoliberaleko politika publiko baten, erreformaren, krisialdi ekonomikoaren, lan prekarietate hazkorraren, murrizketen eta abarren ondorioz gero eta biztanleriaren sektore gehiagok baliabide ekonomiko gutxiago daukate gutxiengo ongizate mailari aurre egiteko (askitasun ekonomikoa, etxebizitza, energia, elikadura, haurren garapena, aisia eta kultura).

Gaurko lan merkatuak, gero eta prekarioagoa eta desberdintasun handiago duena, pobretu egiten du, eta ez ditu baliabide ekonomiko nahikorik bermatzen. Hedatzen ari da langile pobreen fenomenoa, hilabete amaiera iritsi ezinik bizi direnena, ikusten ez den pobreziaren biktimak, esaterako, energia eta botika beharrizanak estaltzeko, edota haurren pobrezia.

Diskriminazioa areago luzatzen da emakumeen artean, profesionalki segregatuta dagoen lan merkatuan. Lan merkatu honek eragozten du bizi-proiektu independente bat garatzeko autonomiara iristea.

Halaber, gazteen egoera ez da batere desiragarria. Bizimodu duina bermatuko dien enplegua lortzeko aukerak oso urriak dira, eta langabezia nahiz prekarietate tasa itxuragabeak pairatzen dituzte. Etorkizuneko proiektu bat sortzea erabat ezinezkoa gertatzen zaie.

Egia bada ere babes sozialeko gutxienekoak bermatze aldera, badirela gutxieneko arau batzuk, esaterako azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, zeinak arautzen dituen Gizarteratzea eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, zeinak arautzen dituen Etxebizitzarako Eskubidea Nafarroan, egia da ere, gaur egun eznahikoak direla.

Pentsioak hainbat eratara murriztu izan dira (pentsio berriak murriztuz, erretiratzeko adina atzeratuz, erosteko ahalmena galduz). Prestazio sozialek, esaterako Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak, ez ditu babesten egiazki behar duen pertsona oro, eta egiten badu, guztiz eznahikoak diren prestazioen bidez egiten du. Etxebizitza izateko eskubide efektiboa ez da eskubidetzat onartzen.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eredu neoliberalaren alternatiba den eredu ekonomiko eta soziala proposatzen du, gutxiengo batek izan ditzakeen interesak baino, bizitzaren eta lurraren defentsa lehenetsiz, kapitala baino lana lehenetsiz eta merkatua baino pertsonak.

Taxuzko eta benetako politika publikoak behar dira aberastasuna banatzeko, kalitatezko enplegua sortzeko (sozialki baliagarria, egonkorra eta bidezko ordaina duena), lanaldiaren murrizketa eta banaketa lortzeko. Ezinbestekoa da lana bere osotasunean aintzat hartzea, lan produktiboa zein erreproduktiboa barne.

Halaber, Eskubide Sozialen Kartak babesten du gizarte eta lan politikei buruzko erabakiak gure lurralde-eremuan hartu behar direla; horretarako, Lan Harreman eta Gizarte Babeseko bertako Esparrua erdiesteko bidean aurrera egin behar da Nafarroan.

Eredu alternatibo honen baitan, beharrezkoa deritzagu eskubide sozialak bermatu eta hobetuko dituzten

neurriak hartzeari, pobreziari eta bazterkeria sozialari aurre eginez. Horretarako, honako aldaketak beharrezkotzat jotzen ditugu.

- **Azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, non haren bidez arautzen diren Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko eskubideak,** aipatu Errentaren estaldura hobetze aldera.
- **Maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, non haren bidez arautzen den Etxebizitza izateko Eskubidea Nafarroan,** alokairu sozialeko bizilekua izateko eskubide subjektiboa benetan aitor dadin, instituzioak derrigortuz beharrizan sozialei erantzuna ematera.

Hori dela eta honakoa proposatzen da:

## 1. ARTIKULUA: azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeari dagokionez, zeinak arautzen dituen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko eskubideak, hau proposatzen da:

**A.- 5. artikulua aldatu: eskubidearen titularrak** a) eta b) ataletan eta c) eta d) atalak bertan behera gera daitezela, honela idatziko liratekeela:

**5. ARTIKULUA. Eskubidearen titularrak.**

Errenta bermatua jasotzeko eskubidea izango dute, honako baldintzak betetzen dituztenek:

a) 18 urtetik gorakoa izatea. Gutxieneko adin muga hau salbuetsi egingo zaie adin hori bete ez baina gainerako eskakizunak betetzen dituztenei, baldin eta honako egoeraren batean badaude:

- Diru-sarrera aski ematen duen enplegua izatea.
- Baliaezintasuneko pentsioa jasotzen dutenak.
- Adingabeak zein ahalmen-urritasunen bat duten adinduak edo mendekotasuna onartuta duten adindunak ekonomikoki beren ardurapean dituztenak.
- Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.
- Ezkonduta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona batekin loturik daudenak gutxienez sei hilabete lehenagotik.
- Genero-bortizkeriaren biktima izan direnak.

b) Eskabidea egiten den unean Nafarroako Foru Erkidegoaren edozein udalerritan erroldatuta egotea eta egiazko egoitza izatea, eta eskabide egin baino urtebete lehenago Nafarroako Foru Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana.

Urtebete baino gutxiagoz erroldatuta egon izan balitz, bertan benetan bizitzearen frogak onartuko dira urtebeteko baldintza osatu arte.

Eskubidea egin aurreko gutxieneko epealdi hori bete ezean, Nafarroako Foru Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea azken hamar urteetan bost urtez.

**B.- 6. artikulua aldatu (Unitate hartzailea, familia-unitatea eta familiaren muina)** haren 3. eta 4. ataletan, atalen idazketa honela geratzen dela:

**6. ARTIKULUA. 3. atala:**

3.- Izaera orokorrez, familia-unitatea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzailea izango da, eta hari prestazio bakarra egokituko zaio. Beste Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak jaso ahal izango dira ere, familia-unitate berean beste familia-muin batzuk izango direnean, eta horietako batzuetan adin txikikoak edo menpekotasunen bat edota %65eko baliaezintasuna edo baliaezintasun handiagoko pertsonak badaude.

**6. ARTIKULUA. 4. atala:**

4.- Etxebizitza berean bi familia-unitate edo unitate gehiago biziko balira eta 6.2 artikuluan aurreikusi loturarik ematen ez dela, horietako bakoitzari egokituko zaio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidea, mugarik gabe, etxebizitza bakar batean har daitekeen Errenta kopurua edozein dela ere.

**C.- 7. artikuluaren aldaketa. Zenbatekoak.** 1. eta 2. atalak aldatzen dira, eta 3. eta 4. atalak ezeztatzen dira. Horien guztien erredakzioa honela geratzen da:

**7. ARTIKULUA. Zenbatekoak. 1. atala:**

Bizikidetza-unitate bakoitzari ezar dakiokeen prestazioaren hileko zenbatekoa Foru Lege honetan aurreikusi zenbatekoari, hartan aurreikusi terminoetan, unitate-hartzaileak izan zitzakeen diru-sarrera konputagarriak kentzearen emaitza izango da.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren portzentaje gisa definituko dira, eta honakoak izango dira:

- Pertsona bakarreko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren %100a.
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren %150a bi pertsonako bizikidetza-unitateentzat.
- Hiru pertsona edo gehiagoko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren %200a.

**7. ARTIKULUA. 2. atala:**

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa aipatu mugari lege honetan aurreikusi terminoetan unitate-hartzaileak lituzkeen sarrera konputagarriak kentzearen ondorioa izango da, eta aurreko atalean ezarri kopuruen arte osatuko dira.

Lege hau indarrean sartu den uneaz geroztik, aipatu kopurua, gutxienez, urtero eguneratuko da, bat etorriz lanbide arteko gutxiengo soldatak, KPIak edota aurreko ekitaldiko Nafarroaren batez besteko soldatek izan dezaketen gehieneko gehikuntzarekin.

**D.- 16. artikuluaren aldaketa.- Laguntzak jasotzeko aldia** honela jasoko da:

**16. ARTIKULUA.**

Onartzen da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak jasotzeko eskubidea, denbora-mugarik gabea, beti ere, haren ematea eragin zuten zioak bere horretan irauten badute eta Lege honetan aurreikusten diren betekizunak betetzen badira.

**E.- 18. artikuluaren aldaketa.- Betebeharrak, haren c) atalean, non haren idazkera honela geratzen den:**

**18. ARTIKULUA.** c) atala:

Laneko adinean dauden hartzaile guztiak enplegu egokiko eskaintzentzat eskuragarri eutsiko dira, araudiaren arabera ezartzen diren zerbitzu publikoen ustez, laneko enplegua ez eta enplegu babestua egiteko egoera ez daudenak izan ezik.

**F.- 21. artikuluaren aldaketa.- Prozeduraren ebazpena eta hura ebazteko epearen etendura, haren 1. atalean, honela jasoko dena:**

1.- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaerak tramitatzeko eta ebazteko erakunde eskudunari egokituko zaio diru-sarrerak bermatzearen gaia, zeinak haren titularrak epaia emango duen hilabete bateko epean, Nafarroako Gobernuaren erregistro ofizialetako batean sartu den dataz geroztik zenbaturik, eta egokia iritziko balitzaio, prestazioaren zenbatekoa eta pertzepzioaren aldia zehaztuko du.

Epaia emango ez balitz eta jakinaraziko ez balitz aipatu epean, eskaera balioetsiko da administrazio-isiltasunagatik.

**G.- 25. artikuluaren aldaketa.- Prestazio eskubidea iraungi delako, a) eta e) atalak bertan behera utziz.**

**H.- 34. artikuluaren aldaketa.- Xedapen orokorrak, non haren 3. atalean, honela jasoko den:**

3.- Familia-unitateak jaso izan balu Diru-sarrerak Bermatzeko errenta aldi jarraitu batez, hogeita lau hilabetetan gutxienez, dagokion Administrazio Publikoak eskaini beharko dio, hala balegokio, Babesturiko Enplegu Sozial baten programan edota bestelako enplegu eta/edo heziketako aukera, ez bada, zerbitzu publikoen iritzian

ezarritako araudien baitan, haren kideak hari lotzeko baldintzetan ez badaude. Eskaintza honek nahiz hartatik eragin betebeharrek agertu behar dute programa pertsonalizatuan. Dena den, eskaini den enpleguaren izaera egokiaz hartu den erabakiak hartzaileak onartu izanak edota onartu ez izanak ez dute Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta galduko dela ekarriko.

## I. Lehen Xedapen Gehigarria.- Bigarren atala deuseztatu:

**2. Artikulua: 10/2010eko FORU LEGEARI dagokionez, MAIATZAREN 10EKOA, NAFARROAN ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEARENA, proposatzen da:**

**3., 4., eta 5. atalak gehitu 2. artikuluari, eta honela jasoko da:**

**2. Artikulua. Babestutako jarduerak, ordainketa moduak eta eskubide subjektiboaren eskakizun betebeharrak.**

3.- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea bete behar du Nafarroako administrazio publikoak alokairuan eskura jarrita etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat, edo baita etxebizitza libre bat ere, baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren batengatik edo beste arrazoi batzuengatik, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanonarekin.
Prezioak edota errentak ez dezake diru-sarreren %15a gainditu, etxebizitzan bizi diren pertsonen sarrera guztiak, diru-sarrera bermatzeko errenta beste edota azpikoak badira.

4.- Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen sistemak inoiz ez du aurreko atalean jasotako eskubidea ordezkatuko.

5.- Administrazio publiko eskudunei etxebizitza izateko eskubidea exijitzeko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- Etxebizitza edo bizitoki egonkor edo egokirik gabe egotea. Etxebizitza egokia ez izatearen arrazoiak izan daitezke juridikoak, bizigarritasuna, tamaina, ahalmen ekonomikoa edo eguneroko bizitegi normalizatua izatea zailtzen duen beste edozein.
- Etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroan balizko eran izena emanda egotea.

## INDARGABETZEKO XEDAPEN

Lege hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko dira berarekin kontrajarrita egon litezkeen edo haren aurka egin ditzaketen lege edo araubide-xedapen guztiak.